


DBUS-EK 2010EKO BALANTZEA EGIN DU ETA BERE AURREIKUSPEN GUZTIAK HOBETU DITU

Donostiako Tranbia Konpainiaren Administrazio Kontseiluak Dbusen 2010eko Urteko Memoriako datuak onartu ditu, bai eta emaitza ekonomikoak ere. Memorian nabarmentzen da, batez ere, bidaiarien kopuruak izan duen igoera. Izan ere, 28.460.380 izatetik 29.015.007 izatera pasatu dira 2009tik 2010era bitartean. Hau da, 2009an egon zirenak baino 554.627 bidaiari gehiago egon dira 2010ean.



Zifra hori -Espainian zein Frantzian biztanle kopuru antzekoa duten hiri guztietan dagoena baino askoz handiagoa da- marka historikoa da, zerbitzua udalaren eskura pasatu zenetik eta DTK-k beste udal batzuei zerbitzu emateari utzi zionetik gaur arte DTK-k izan duen bidaiari kopururik handiena izan baita. Zifra horrekin, gainera, garraio publikoaren erabilera indize handiena izatea lortu du Espainiako gainontzeko hirietan dagoena erreferentziatzat hartuta (157 bidaia biztanleko).

Donostiako autobusek izan duten bidaiarien igoera kasu berezia izan da, azken urteetan garraio publikoaren erabiltzaileak, oro har, gutxitu egin dira eta. DBUSen kasuan, berriz, azken bost urtetan bidaiarien kopurua hiru milioi baino gehiago handitu da. Inoiz egon ez den bidaiari kopuru hau egon bada, iaz abian jarritako hainbat neurri eta jarduketek eskertzen dira.

Azken urteotan gertatu diren gauzetatik honakoak nabarmendu daitezke:

- 8 autobus ekologiko berri gehitu dira, eta orain guztira 113 autobus eta 8 mikrobus daude; denak batez beste 5,36 urte dituzte.
- Une honetan autobusen %100 dira irisgarriak.
- 2009ko irailaren 28tik aurrera:
 - Benta Berriko linearen zebitzua (5. linea) areagotu da zerbitzua 6 eta 8 minutu bitarteko maiztasunaz izateko.
 - Express zerbitzuak jarri dira Unibertsitatera eta Zuatzura. Une honetan Zuatzu parkera doan zerbitzuak 20 minutuko maiztasuna du.
 - 25. lineak Belartzara egiten duen zerbitzua handitu egin da 20 minututik 20 minutura jarrita.
 - Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza lineak, 31. lineak alegia, zerbitzu zabalago ematen du, Ospitaletara, Aietera eta 27. poligonora doazen konexio berrieekin.
- SMSen bitartez eta web orriaren bitartez erabiltzaileei eskaintzen zaien informazio zerbitzuak ondo dabil, 2010ean 454.030 bisita izan zituen, 2009an izandakoen %30 gehiago alegia, 2009an 349.425 bisita izan zituen eta.
- Informaziorako 84 panel jarri dira gehien erabiltzen diren lineetan.
- Bideo zaintzarako sistemak instalatu dira autobusetan.
- Langileak prestatzeko egin den ahalegina handia izan da; ikastaro ugari eman dira, besteak beste gidatze ekonomiko, seguru eta ekologikoari buruzkoa eta giza harremanei buruzkoa.
- Barne komunikazioari buruzko politika indartu da, eta Konpainian Giza Baliabideak hobetzeko plan bat ezarri da.
- Komunikazioko edo parte hartzeko hainbat ekintza egin dira gizartean, besteak beste hauek: "Gabonetako Haurren Marrazki Lehiategia"; Dbusberri aldizkariaren doako banaketa; "Olioaren birziklapena" izeneko kanpaina, non 100 litro baino gehiago olio jaso eta Mugaritz Jatetxerako 2 afari zozketatu ziren; Unibertsitate eta Zentroekin egindako elkarlanak; eta Magia autobusetan.

Linea erabilienak

Gehien erabili zen linea, 2010ean, AMARA-OSPITALEAK linea izan zen (28. linea), urtean ia bost milioi bidaiarirekin. Linea horren ondoren ALTZAko linea (13. linea) eta BENTA-BERRIKO linea (5. linea) izan dira bidaiari kopuru handienak izan dituztenak. Hiru linea horiek AENOREk ematen duen Kalitate Egiaztagiria dute Bidaiarien Garraio Publikoen UNE- EN 13816 arau espainiarraren arabera lortua, eta hiriko ardatz nagusietatik zehar ibiltzen dira, DTKko bidaiarien %40 baino gehiago hartuta.

Esan behar da bidaiarien %86,90ek deskontu txartelak erabili dituztela, eta horien artetik Dbus txartela izan da erabiliena, bidaiarien %80k erabili izan baitute txartel hori, erabili ere bere modalitate guztietan, hau da, bonobusak zein hileko bonobusak. Lurraldebus txartela, berriz, bidaiarien %8,51k erabili dute.

Kontuen balantzea

2010eko itxierak aurreikusitako emaitzak asko hobetzea ekarri du. Hain zuzen ere hasieran aurreikusten ziren emaitzekin alderatuta, 603.075,15 €-ko aurrezpena egon da.

DTK-k egindako ahalegin handiari esker, gastua kontrolatzen eta onartutako aurrekontua betetzen saiatu baita, ustiapen kostuak eskainitako kilometro bakoitzeko %1,73 txikiago izan dira aurreko urtekoekin alderatuta. Hori dena ondorio negatiboak egon diren arren, erregaiaren prezioak asko igo direlako eta BEZaren igoera erabiltzaileari jasanarazi ez zaiolako.

Hitz batean, hiriko autobus zerbitzuan hobekuntzak sartzeko apustu sendo honekin, DBUSEk garraio publikoaren erabileran duen lidergoa sendotu egin da, eta autofinantzaketako indizeak sektoreko enpresa gehienetan dagoena baino askoz handiagoak dira.

Era berean, gogoratu behar da enpresak 446 langile dituela, eta horietatik 345 gidariak direla, 37 tailerreko langile, 20 garbitzaile, eta gainontzekoak administrazio, plangintza eta kontrol lanetan ari direla.

Autobusaren erabileraren ondorioz, Donostian asko aurreratzen da, 8,3 milioi euro baino gehiago hain zuzen ere, Zuricheko Karlsruhe Unibertsitateak markatutako kostu irizpideen

arabera. Izan ere, eguratsera igortzen diren substantziak gutxiago dira, kutsadura txikiagoa da, istripuak gutxiago dira, eta erregai gutxiago kontsumitzen da, besteak beste.